
# 20 24

## SAN ADRIAN IGAROBIDEA



San Adrian tunel naturala (Edo Lizarratekoa) 1000 metro inguruko altueran igarotzen da, Aratz menditik gertu. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorrean kokatuta dago, Zalduendo (Araba, SW) eta Zegama (Gipuzkoa, NE) udalerrien arteko mugetatik 700 metrotara inguru. Eskuratutako datuen arabera, hura historiaurretik erabiltzen da, eta igarobide garrantzitsua izan zen Gipuzkoa eta Arabako bide-sarean Erdi Aroan eta Aro Modernoan. XIX. mendean hainbeste erabiltzeari utzi zioten eta XX. mendean, berriz, desagertu zen. Gaur egun, mendizaleek bakarrik erabiltzen dute.

Tunel substratua ura bideratzeko eratze karstiko tipikoa da. Araba aldeko sarreran (hego-mendebaldea) hobi zahar bat aurki dezakegu.


Igarobide honek 58 m luzera du, eta Erdi Aroan eta Aro Modernoan gotorleku xume batzuk zituen.

Barrunbe naturalak, Gipuzkoako alderantz (ekialdea), itxura berezia dauka; galtzadako norabide aldaketa jaitsiera batekin konbinatzen duelako, eta era horretan gotorlekua naturalki babestuta geratzen zen.

Erdi Aroan, ekialdeko sarreran kanpo harresi bat zeukan, bere atearekin eta eraikin bat atxikita, kanpo barruti bat eratuz. Atzerago, beste harresi bat existitzen zen, tunelaren sarrera defendatzeko eta baita eraikin txiki bat ere, altuxeago zegoen guen batean eraikita.

XVI. mendean, tunela mutur bitan itxita zegoen manposteria hormen bidez (13) eta horietan, ateak zabaltzen ziren (1 eta 2), ziur aski, kanoi-zuloek defendatuta, ateen albo bakoitzean (15). Kanoi-zuloen hipotesia XVI. mende amaierako zirriborro batean oinarritzen da. Bertan, badirudi alderantzikako zulo-kanoiak daudela (kanpoalderantz barrualderantz baino zabalagoak), baina ezin da ziurtasunez baieztatu. Horrez gain, baliteke bigarren su antolamendu bat ezartzea, egurrezko egituraren baten erabileraren bidez.

Barruan, nagusiki, bi plataforma zeuden maila desberdinean ipinita. Behe plataformatik galtzada bera (3) igarotzen da (badirudi gaur egungoa baino 3 m inguru gutxiago duen kota batean) eta, nagusiki haren hegoaldean, hauek kokatzen ziren: San Adrian izeneko ermita (7), etxebizitza bat (6) (1855ean mikeleten postu batengatik ordezkatu zen) eta ostatu bat (5), XIX. mendean, zeregin berbereko beste eraikin batengatik ordezkatuta izanik. XX. mende hasieran izandako sute baten eraginez, bi erakin horiek suntsitu egin ziren, galtzada erabat gainbeheratu zenean. San Adrian ermita aipatutako bi eraikinen atzean kokatzen zen, baina berreraiki zen leku desberdin batean (gaur egungo eraikina da). Hura laukizuzen plantak eta bi isurkiko teilatuak osatuta dago.





***SAN ADRIAN IGAROBIDEA***

*1. "Tesorillo" (1964).*
*2. Gaur egungo ermita .*
*3. Galtzada.*
*4. Lurralde naturala (harkaitza)*
*5. Ekialdeko itxiera*
*6. Galeriak*

Iparraldeko plataformak (9) behe plataforma menderatzen zuen. Hainbat horma zituen (11), ziur aski almenadunak edo gezileihoduna, galtzada tuneletik zehar kontrolatu ahal izateko. Bertara, eskailera baten bidez sartzen zen (8). Defentsarako barruti honek plataformaren mendebaldeko muturretik jarraitzen zuen, eta hura tunelaren irteera independente bat zen, goraxeago zegoen kotan kokatuta.

1964an 141 txanponeko eta beste material metalikoko biltegi bat aurkitu zen.

**Gehiago jakiteko**: San Adrián-Lizarrate. - Aranzadi, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2016. 139 p.







*San Adrian igarobidea ekialdeko sarbidetik.*

*Ortoargazkia2015. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 X: 555803 m // Y: 4753826 m // Z: 1023 m.*

***San Adrian igarobidea***

*1. Arabako sarbidea (hego-mendebaldea)*
*2. Gipuzkoako sarbidea (ipar-ekialdea).*






*San Adrian igarobidea, Mikeleten etxearekin, XX. mende hasieran.*

**SAN ADRIAN IGAROBIDEA**

Zirriborroa (XVI. mendea).

*1. Ekialdeko atea*
*2. Mendebaldeko atea*
*3. Galtzada tunel barrutik*
*4.Sutegia (?)*
*5. Ostatua*
*6. Etxebizitza (gero mikeleten etxea)*
*7. Ermita (ondoren lekuz aldatuta)*
*8. Eskailera*
*9. Ekialdeko goratutako gela*
*10. Mendebaldeko goratutako gela*
*11. Ziur aski almenaduna zen parapetoa*
*12. Iturria*
*13. Itxiera horma*
*14. Harkaitz naturala*
*15. Kanoi-zuloa*